

TREBAKUNTZA 2018-11: DENA/GUZTIA

Udal idazki askotan, txarto erabilia eta nahasita ikusten ditugu DENA eta GUZTIA. Hona hemen zuzendu beharreko akatsak:

OHIKO AKATSAK

1. * **Zinegotzi denak** bat etorri dira Hirigintza batzordeko akta onartzerakoan.
2. * Gai horri buruzko **txosten denak** eskatu ditu oposizioak.
3. * Zerrendako **hautagai denek** gainditu dute lehenengo proba.
4. * Arabako **udalerrri denei** eragingo die Aldundiaren erabakiak.
5. * Bileran emandako **datu denak** benetakoak dira.

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. * **Zinegotzi guztiak** bat etorri dira Hirigintza batzordeko akta onartzerakoan.
2. * Gai horri buruzko **txosten guztiak** eskatu ditu oposizioak.
3. * Zerrendako **hautagai guztiak** gainditu dute lehenengo proba.
4. * Arabako **udalerrri guztiei** eragingo die Aldundiaren erabakiak.
5. * Bileran emandako **datu guztiak** benetakoak dira.

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

Dena(k) / Guztia(k)

Dena(k) bera bakarrik joaten da, izenik gabe:

- Alperrik da ezer ezkututzen ibiltzea. Gure abokatuak **dena** daki.
- **Denak** etorriko dira Udalak antolaturiko inauguraziora.
- **Denek** ez dakite zer esan nahi duen esamolde horrek.

Beraz, zalantzazkoak ditugu esapide hauek:

- (?) Aurtengo ikasle denak hasi ziren kexaka, ikastaroa laburregia delako.
- (?) Sarrionandiaren liburu denak irakurri dituzu?

Guztia(k), berriz, **bera bakarrik** joan daiteke, **eta izenarekin ere bai**:

- Lehenengo orduetan han egoteko aukera izan nuen, eta **guztiak** atxilotu zituztela ikusi nuen.
- Era berean, oharrak aipatzen duen moduan, arduraz jokatzera deitu zituen **alderdi guztiak**.
- Izan ere, **proiektu politiko guztiak** defendatu eta gauzatu daitezkeela uste dute.

Beraz, **guztia jan dut** eta **dena jan dut**, biak dira zuzenak.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99